


# Agurain

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak



# AGURAIN



1924ko uda. E.Guinea. Gasteizko Udal Artxiboa

# Agurain

*Agurainek ikuspegi asko du. Historia luzea duelako, ikusgarri horietako bat hiri zaharreko hiru karriketako harria da: Kale Nagusia, armarri eta mazmarro eta balkoi ederrak daduzkaten etxez osatua; Zapatari kalea, izenak berak dioenez zapari, oskigile, zizol zirenen lantokia izan zena, antzinan; Harategi kalea, etxabe gutiz gehienetan hain beharrezkoa zen harakintzan lan egiten zutenen bizitokia baitzen.*

*Herria, gainera, gaur egun industria-herri da. Hasieran errotak zegoen, eiharak, eta handik, 1848an Araban irin-langintza eraiki zen, lehenbiziz; gero, lantegi handiak heldu ziren eta XX. mendean herrialdeko lehen siderometalurgia kokatu zen, lehengo larrain-soroetan.*

*Izadia ere ikuspegian, egon ere, eskualde hau ingurugiro ederraz babestua dago, Entzia mendilerroaren azpian. Eskualdeko bideak eta zidorrak ibiltea baino ez da hainbat oroitarri megalitiko, triku-harri edo hegazti migratzaileen aterpe den zingira bat ikusteko. Done Jakue Bidea ere hemendik doa.*

*Hiribildu hau, dagoen lekuan dagoelako, hots, bide askotako “gurutze” batean, historian oso gune berezi edo bere-berea izan da, izaera bera ere markatua: erromatarren garaietan Bordele eta Astorga bitarteko harbide edo galtzadak zeharkatzen zuen; aipatu berri dugun Done Jakue Bideak ere bai; arrain-ardoaren bideak, Araba eta itsasoa lotzen zuenak hemen zehar egiten zuen joan-etorria; gaur egun N-1 errepide garrantzi handikoa, Frantziarako eta Frantziatikoa alegia, hemendik iragaiten da, eta, ondorioz, logistika-gune bilakatu den eskualdea dugu hau, enpresa batzuk eta lau bentzinategi lekuko.*



Amamarengandik  
bilobarengana

Lehen eta orain





# Emi García- rekin

Agurain

Cecilia zioten izen eman nahi gurasoek, baina erregistro-tokian okertu ziren eta Emilia ezarri zioten. Etxeak guztiek La Emi esaten diote. Ez du ahanzteko, ez du atzendu, ez, Emik garai zahar haietako giroa, txiroak txiro, eta beti txiro ziren bizialdi gogor hura, ez etxerik ez lurrik, berea zenik ezer ez zedukatenean, dena besterena zen. Urteak joan dira, biziera aldatu da, tint.

Agurain herri aberatsa izan dela esan daiteke, harresi handiak, jauretze armarridunak eta halakoak horren ezagugarri; honela ere, nekazari-herri ere izan zen, lurginek eguzkitik eguzkira, senide guztiak batera, lan eta lan egin behar zuten soro-herri. Garaiak zailak haiek, aisa bizitzeko ez.

Cecilia García de Vicuña, Emi, 89 urtetan, amaz oroitzen da, bizialdi guztiko egun guztietan lan egin behar izan zuela dio eta ezin gozatu izan zuen berak jubilatatu ondorean, bidaiatuz eta beste leku batzuk ezagutuz, gozartu duen bezala, Imsero delakoaren bidez.

Arratseko zazpiak dira, gautu du eta hotz dagi. Honela eta guztiz ere, Emik, berokiaz jantzi eta bildua, berriz ere Arramel karrikarantz jo du. Jubilatatu edo “arazgetu” batzuk, adiskideak, biltzen diren tokia, kluba hantxe dago. Lehen lan eginda dagoz, orain gozartu behar da, atsegin edo atsedean hartu behar da, ondo bai ondo irabazita.



“

*Lurrak  
eta etxea  
alokeran”*



Nekazari  
aberatsek  
beste bizimodu  
bat zuten




*Sendiaren bilduma*

San Juan auzoan jaio zen, labore-soroez eta abereez inguratua. Sei ahizpa eta hiru neba, eta haurtzaroa nola edo hala bizi beharra izan zen.

Etxeko lanetan ezinbestela eta orduan eskolara bagerik, aurrena soroko lana baitzen, baitezpadakoa. Neguan, lurrean ezin ezer egin, euria zela edo elurra zela, orduan bai, eskolara, egun banaka batzuetan baino ez, hala ere. Lau erregelak -gehiketa, kenketa, biderketa, zatiketa- eta irakur-idazten ikasteko nahikoa, besterik ez.

“Txiro bizi izan gara beti, eta beti lan asko eginda”. Emiren aitak ez zedukan lurrik eta bizi ziren basetxean ere maizter. Jabegoa zuten lurginek beste bizimodu bat zuten. “Aitak etxean beti behar egiten zuen, inora bagerik, eta guk ere halaxe”. Lurdunak eta soro-ja-beak zirenak Gasteizera azokara joan ohi ziren, ostegunoro, kafettoa hartzera, akeita alegia, eta kartetan jokatzen. Besteak bainoago ziren, nonbait.

*Aguraingo larrainak. E.Guinea.  
Gasteizko Udal Artxiboa* ►





## Aberats izaiteak emaiten zuen berezikeria

Azkarraga eta Begoña askaziak antzindanik handikiak ziren, Emiren garaian ere bai, eta elizan bertan ere nabarmen. “Kaperak ere haientzat ziren, jarlekuak eta aulkiak halaber, aberatsentzat; gu, aldiz, ahal zen lekuan jarten ginen”. Handiki haien etxe handiak, etxandiak, oraindik Aguraingo erdialdean nabariak dira. Harrizko hormetan haien mazmarro handi-ederrak, harriz landuak, eta burdinazko balkoi politak ere hantxe.

Emik Begoña sendia oso hurretik ezagutu zuen, zeren, neguan, landetan lanik ez eta haren etxera bidaltzen zuten, ahizpekin batera, garbitzaile. Euren lanagatik zerbait, diru apurrik, irabazten zuen, aitak, baina berek ezer ez. Izan ere, “bederatzi seme-alaba ezkontzea, garai haietan, arazo zaila, gaitza zen”.

Talde-argazkia 1910-1915 irian, Aguraingo kaleetan. Photo-Araba ►





“

*Neguan haien  
etxeak garbitzen  
genituen eta aitak  
zerbait irabazten  
zuen”*

# Etixeratze-agin- dua' joiten zu- ten eta guztiak etxera

Neska gazteak ez ziren mutil lurginez erraz maitemintzekoak. Makinarik ez zegoen eta lurra lantzeko idiak edo behiak edo mandoak erabili ohi ziren. Orduan, gizonezkoa zein emakumezkoa berdin, itaurreko edo itatzeko, sega eskuan, edo zer-nahi eta lan-da-lan.

Alta bada, XX. mendean, erdialdean, sega-makinak heldu ziren, traktoreak eta gaur egun erabiltzen diren hainbat eta hainbat makina edo tramakulu, eta “andereak”, harez gero, sorora ez. Orain nekazarirekin ezkon litekeela uste du, doike; orduan, berriz, Jose Mari Zaldue-  
do gaztea hautatu zuen, San Juan auzoko bertako perratzailea.

Ezkon-egunean, 24 urteko, Emik lehenbi-  
ziko aldiz janzkera berea eta berria jantzi  
zuen, estreinatu zuen. Ordura arte, beti  
ahizpa zaharragoek utzitakoa jantzi izan  
zuen.

Etzetik atera eta lagunekin solas eta  
jostatu gutitan, dantza zegoenean, eta  
gaueko bederatzietan etxera atzera. Elizan  
kanpaitto bat joiten zen, ‘etxeratze-deia’,  
eta guztiak etxeratu behar, nahi eta ez,  
apaiza herriko karriketatik barrandari  
ibiltzen hasi aurrez.

Agurainen zinetokia zegoen, baina Emi-  
ren etxean harako dirurik ez, beraz, zinea  
ikusteko eretia gerorako geratu zen.





“

*Janzkera  
berria ezkondu  
nintzenean baino  
ez”*

*Sendiaren bilduma*



Aguraingo jaiak, 1968. Arqué. Gasteizko Udal Artxiboa

“

*Lehenengo  
ikuztailua eta  
beste aldaketa  
batzuk”*

## 60.eko urteak

Ikuzi, ikuztokian ikuzten zuten, lats edo errekan ere bai, belaunikaturik, Ordoñana aldean, udan batez ere, urik gehien eta garbien zegoen lekua baitzen.

Bokata zinkezko pertz batzuetan egin ohi zuten.

Oihal zuriak sartzen zituzten eta gainean sutatik idokitako errautsa egozten zuten. Zuritzeko era zen. Errautsaz gero ura irakitean. Gero eskorga edo gurdiño batez ikuztokira eraman ohi zuten, edo ibaian garbitzera, eta dena ondo-ondo ikuzirik eguzkitan zabaldu ohi zuten.

Emik etxean eduki zuten lehenbiziko ikuztailua 60. hamarraldian heldu zen; ordurako bere bi alabak eta semea jaiokak ziren.





*Sendiaren bilduma*

“

*Txartotik  
onera etorri  
ginen”*

## Jubilazioan aisabizi

Emik badaki aisialdia ondo betetzen, jubilatuen ondorean.

Imerso delakoaren bidez, ahal izan duen guztian, bidaiatu izan du, adiskideekin solasean elkartzen da eta honetarako guzti honetarako jubilatuen kluba toki egokia da, urteetan lan eta lan egin eta gero.

Biziera lasaiagoa, eiki, nahiago izango zuen, gaur egungo emakumeenen antzekoagoa, bere lanbide eta guzti. Lehen, soroa ala lantegia zen (larru-lantegia, azuleiu-ekoiztegia...), baina berak beti etxean.

“Etxean” dio, egun bakar bat ere lanik egiteke ikusi ez duen edozein nekazarik esango lukeen bezala. Jose Marirekin, etxeko ekonomia urriari zerttobait gehixeago gehitu nahian lantzeko lur-alor batzuk alokatu zituzten eta hala hasi zen, 500 pezeta ordaintzen zutelarik.

Horregatik gaur egun bizimodua bestelakoa dela uste du, errazago, eta aukera edo ereti gehiago dagoela. Aimarrek 20 urte du, eta amamaren hitzok adi-adi entzuten ditu, inoiz ere entzun izan ez bailituan.



*Aurreko mendeko gazteak. Vicente Lopez. Photo-Araba*

## Aukerak dituen herria

Aimarrek Arrasaten ikasten du; egunoroko joan-etorriak ez dio axola handirik, alde-rantziz, ibiltea maite du.

Hiritzar batean-edo bizi nahi luke, epe ba-

tez, baina jaio eta bizi den lurralde hau alde bat utzi bagerik, hemen herriak eta gazte-tasanak aske eta bere gain hazteko aukera emaiten baitiote.

Lana ez da arazo hemen, industriadako joera handia dago eta. Hala ere, zerbait aldatu da, ez dago lehengo giroa, jaia beste leku batera joan da. Aimar asteburuetan Gasteizera joan ohi da, jostatzearren.



*Sendiaren bilduma*

## Euskara, debekatua

“

*Zein urte  
gaiztota jaio  
ginen”*

Emik bilobari begirutzen dio eta harro dago, mutilak uda Atusa lantegian lanean eman duela-eta; “Agurainen aukerak egon badagoz”.

Bilobak euskaraz jakitea ere harrotzeko modukoa da amarentzat; umeez, tti-ki-ttikitatik ikasten dutela dio eta honegatik “bekaitza” die.

“Zein urte gaiztota jaio ginen”, deitoratzen du. Bere etxean inork ez zuen euskaraz egiten, baina, gainera, Francoren urteetan debekatuta zegoen.

Halatan, bada, Gipuzkoa aldetik gazteak Agurainera etorten ziren, nekazari-etxeetara, erdara ikasteko asmoz.

“Guregana hurbiltzen ziren, hizketan aditzearren”, eta erdara ikasitakoan, edo nola-hala ulertzeko gai zirenean, euren etxeetara itzultzen ziren, pozarren.



# Agurain

# EZIN BESTE KOAK

- 1 Salvarierrako hiribildua
- 2 Alde historikoa
- 3 Gotorleku-elizak
- 4 Abere Azokaren 628 urteak
- 5 Entzia mendilerro ikusgarria



*Irekia-Eusko Jaurlaritzak utzitako argazkia. Mikel Arrazola*

- 6 Sorginetzeko triku-harria
- 7 Ergoienak
- 8 Zeramika eta larruak

- 9 Oro musika
- 10 Euskara

*Kepa Ruiz de Eguinori eskerrak*

1

## Salvatierrako hiribildua

Hagurain-dik Salvatierra-ra! Harresiz inguratua den hiribildu eder-eder honek –oroitarri-multzo izendatua– izena aldatu zuen, 1256an Gaztelako Alfontso X.ak konkistatu zuenean.

Bi kilometroko harresia eraikiarazi zuen, inguru osoan, eta foru bat eman zion, bai eta azoka edo zeia egiteko eskubidea ere. Urte oparoak izan ziren, baina 1564an dzanpez amaitu ziren, izan ere, herri guztia zurez egina eta sute ikaragarri batek hartu zuen, 800 hil ekarri zituen izurritearekin batera, hura bai “annus horribilis”, urte lazgarria.

150 urtean Agurain’ Salvatierrako kondeak jaurri zuen; lehena, Jaun Pedro, Aiarako Kantzilerra izan zena, “pernada” esaten zioten eskubidea ere baitzuen. Karlos V.aren aurka Gaztelako “comune-roak” altxatu zirenean, nobleen artean haiekin bat egin zuen bakarra izan zen, eta ondorioz, Ayala-tarrentzat guztiz kaltegarri bihurtu zen, Arabako askazi garrantzidunena izan arren. 1524ko urtarrilean, Karlos V.a Hiribildura etorri zen, Gasteizerantz zihoala, eta foruei zin egin zien.

Harresi gainetik ibiltea, osteratto bat eginez, edo eliza-gotorleku inguruko ibiltokitik begiratzea halako giro antzinako haretan, misteriotsuan, nolabait, murgiltzea bezala da.

*Agurain, 1920 irian. E.Guinea* ►  
*Gasteizko Udal Artxiboa*







▲ *Agurain, 1930 irian. E.Guinea Gasteizko Udal Artxiboa*

## 2

### Alde historikoa

Bi kilometroko harresia inguruan, sartze-ko zazpi ateetatik bat bakarra gaur egun zutik, duela 800 urte bezalatsu dirauten dorretzar batzuk, gotorleku eta eliza diren bi bere ibiltoki-begiratokiekin, eta 1611az geroztik komentu izan dena, honek guzti honek Agurain Lautadako harribitxia edo herribitxia egiten du.

1564ko suak orduko eraikinik gehienak kiskali zituen arren, -zurezko etxe zahar Erdi Arokoak- gaur egun hiribildu zaharreko hiru karrika paraleloak dagoz; zutik, orobat, juduak sartzen ziren atarrittoa eta Alargunen Etxea esaten dioten eraikinaren zati bat.

Antzinate aberats haren ezagugarri, hainbat jauretxetan ikusgai daduzkaten 50 armarri baino gehiago; Azkarraga, Begoña, Eulate edo Bikuña, besteak beste, anbiolako leinuak hor agerian.





3

## Eliza- gotorlekuak

Santa Maria eliza-gotorlekuak XV-XVI. ekoak, erronda-ibiltoki ikusgarria eta xehetasun bitxiak ditu, hala nola Karlos V.ak koru platereskoan duen armarri inperiala, bere inperioko erresumekin eta familia osoarekin, gurasoak eta guzti, hots, Joana “Zorua” eta Felipe “Ederra”.

Oraindik garbi-garbi dago eta ikus dezakezu. Tonalitate eta ikonografia zoragarriak enperadorearen omenez, Aguraingo kondeari Durako borroka irabazi baitzion.

Elizako erretaula nagusia Lope de Larrea-rena da, Agurainen jaiotako harrizko eta zurezko eskultore handia



berau. Herriko ikastola batek haren izena darama omenaldi gisa.

Aguraingo turismo bulegoak, Erdi Aroko Araba elkartarekin batera, bisita gidatuak antolatzen ditu eliza hau eta San Joan eliza ezagutzeko, estilo gotikoko beste gotorleku bat baita.





## 4

# Abere Azokaren 628 urteak

Duela 600 urte baino gehiago, behiek, zaldiek eta ardiek, urtean behin, urriko lehen asteartean, hiria hartzen dute; hor agertzen da bere izaera: nekazaria eta abeltzaina. Aguraingo zeia euskal abeltzaintzan erreferente da.

Gaztelako errege Enrike III.ak Pedro Lopez de Ayala kantzilerrari, Salvatierrako konde zenari, urteroko azoka egiteko eskubide eman zion. Gure garaiotan ere ospe handiko bilgunea da, eta ospetsuak hemen egin ohi diren gazta-lehiaketak, eskuz egindako tresnen salketa, eta nekazari munduko gauzen erakusketa.

Azoka “olbe”-etan biltzen da, antzinako arkupeetan hala egia, zurezko etxean azprietan. Ohiturak dirau eta asteartero hortxe azoka egin ohi da, San Juan enparatzen. Hemendixe, hain zuzen, eliza aurretik karririk luzatzen dira, eta hor “urdai gutxiko” auzoa, noizbait juduen auzoa izan zena.

◀ 1913ko urria. E.Guinea  
Gasteizko Udal Artxiboa



5

## Entzia mendilerro ikusgarria

Entzia esaten zaio eta mendilerro ikusgarri honetan hainbat oroitarri, megalitikoak asko, eta hainbat bidexka, zidor eta inda, gailurrez gailur mendizaleek goza dezaten. Lekua halakoxea, ederra, ugaria, harkaitz eta baso, eta, honelarik ere, inor gutik eza-gutzen du!

Mendizaleak, ez nekerik ez bide txarrik, laster iristen dira, goiti, 1.000 metrotan dagoen orde-kara, inongo ikuspegi eder-luzeak age-rian ukaiteko. Nafarroa hurbil, sinesteak lan badu ere, mendialde horretan, orain 50 urte direla, petrolio edo “harrolio” edireiteko



*Irekia-Eusko Jaularitza  
Pedro Odriozola*

induskatu zuten, zulatu zuten. Milaka ardi eta behi ibiltzen dira, alhan, hango bazkale-kuetan, landetan, larreetan.

“Mendia gurea da”

Entziatik Urbasara, goi-ordoki ederra, Aguraingo herritarrek abereak larretara eraman ahal dituzte eta ditzakete, eta egurra ekarri ere bai. Partzuergoa da, herri-lur-rrak dira, usak, orain 600 urte hala ziren eta oraindik ere hala dira. Abeltzainen arteko li-piztak eta liskarrak ugari, baina ez erregeek ez elizak zituzten mendiotako eskurik, ez eta zergarik jasotzeko ere.

Agurain bi partzuergotan dago, bata Ent-ziakoa eta Iturrietakoa bestea.



## 6

### Sorginetxeko triku-harria

Entzian Legaire eta landa zabal honetan, Euskadiko beste edozein lekutan baino megalito bilduma handiagoa: Sorginetxe eta Aizkomendiko triku-harriak, Egilatzen; Mendiluzeko cromlech-a, Larrazabal, Akarrate eta Itaidako dolmenak, menhirrak eta abar, jentilen garai zaharretako triku-harri, jentilarri, mairu-bartz... liluragarriak.

Sorginetxeko triku-harria hilobi-oroitarri milaka urtekoa “Arrizala” herriko bazte-



*Photo Araba*

rralde batean dago. Arrizabalaga du herriak izena eta sorginek etxerik ba ote zedukaten ez jakin arren, harri zabalak dagozen lekua dela ezin uka. Eta urteetan eta mendeetan hor zutik egon arren, ondo jarrita dagoz egon ere, egonean. Paleolitiko edo Brontze Aroa esaten zaien antzinate zaharreko hilobiak direla uste da, K.A.ko 6.000 eta 3.000 urte bitartekoak, uste denez.



## 7

# Ergoienak

▲ *Agurain, 1920 irian. E.Guinea  
Gasteizko Udal Artxiboa*

Aguraingo baserriak dira, hots, goietan dagoen herriak edo “herri goienak”, Araban horrela deituriko leku bakarrak, Bizkai-Gipuzkoetan izen hori ohikoagoa izanagatik ere. Herriko hegoaldean, Iturrieta mendien magaletan lau dira: Alangua, Arrizabalaga, Opakua eta Egileor. Aguraingoak

bai baina euren buruaren jabe, zelabait esateko, euren batzarrak egin ohi zituzten, euren arteko zuduak edo interesak babestearren, eta egin ere, ohi den bezala, zuhaitz baten azpian, Unsaubiribila deritzon lekuan hain zuzen, “intxaur biribil” bat edo zegokeen haretan.

## Zeramika eta larruak



Arabako zeramikagintza Agurainen bere gunean garrantzi handikoa zen, aurrerakuntza ere bai. Garairik oparoena XX. mendeko 30 urtealdia izan zen, “Cerámica Alavesa” izeneko industriarekin. 1912an Dimas Ugarte Merinok sendideekin batera irasi zuen. Handik azuleiu polit-politak, euskal margolari batzuen irudiak zeramatzatenak ateratzen ziren, hala Arrue anaienak nola Gasteizko Obdulio Lopez de Uralde Villodas marrazkilarienak.

Orain aire zabaleko museoa dago eta Aguraingo hainbat horma apaintzen dute, euskal ekanduzko irudiekin. Beste langintza bat larrugintza zen, antzinadanik. Larruak ondu behar ziren eta honetarako Dolores Achak Julian Lopez de Heredia senarrarekin lehenengo larru-lantegia ireki zuten, horretan hasleak izan ziren. Larrua eta artilea ziren langaiak, ondu, ikuzi behar ziren eta 1938az gero Julián Lopez de Herediak ehun langile baino gehiago zituen, 2009an itxi zen arte. Larruak nazioartean ere ezagunak ziren, ukidura leuna, “goxua” zutelako. Lantegia, antzinako fabrika Arabako arkitektura industrialeko ikur bilakatu zen, adreiluzko tximinia eta guzti.

◀ *Kepa Ruiz de Eguinok utzitako argazkia*



▲  
Aniceto Lezea eta bere seme Pepe Lezea, Aguraingo txistulariak, eta Pitillas, atabalaria. Kepa Ruiz de Eguinok utzitako argazkia



▲  
La Polla Records bere herrian kontzertuan. Kepa Ruiz de Eguinok utzitako argazkia

## 9 Oro musika

Evaristo, La Polla Records-eko kantari eta letrista “txoro-txoro egiten” Agurainen hasi zen. Herria musikala zen, eta bertan penintsula osoko punk-talderik enblemati-koena sortu zen, baina ez bakarria, hala ere, beste batzuk ere bertakoak: Kaos Etiliko, Kaotiko eta Dupla, adibidez, bai eta musikari tradizionalenak ere.

Sebastian Iradier. “La Paloma” abesti ezagunaren konpositore handia hemen bizi izan zen, eta Juan Aramburu musika irakaslea, Luis eta Enrique Aramburu konpositore

arabar handien aita bertan jaio zen. Herriko seme ere Dimas Uruñuela musikaria, beronen seme Jose Uruñuelaren izenean Gasteizko Dantza Akademia.

Aguraingo Lezea txistulariak izan dira mai-teenak. Aniceto Lezeak eta bere seme Pepek herriko erronomia guztiak girotu zituzten 30eko hamarralditik aurrera. Dinastia hau Angel aitonaarekin hasi zen, musika ikasi baitzuen, beste askok bezala, herriko organo-jotzailearekin.





▲ Kepa Ruiz de Eguinok utzitako argazkia

## 10 Euskara

Araba XVI. mendea baino lehen, lurralde euskalduna zen, oro har. Euskara herritar gehienek hizkuntza zen, xumeenena, baina Erdi Aroan, azkenaldian, erabilera murriztuz-murriztuz joan izan zen; honela eta guztiz ere, XIX. mendean (1841) Agurainen, udal kargudunen artean itzultzailea zen, erdaraz ez zekiten herritarren arazoak auzitan ebatzi behar izaitekotan beharrezkoa.

Gaur egun herritarren %36 euskalduna da, hots, euskaraz dakiena.

Bilakaera hau azkenengo bi hamarralditan zabaldu da. Ikastola bi dagoz, eta helduek euskalduntzen hasteko tokia badute, jubilatuen txokoan ere ikasteko aukera dago.

# Agurain zenbakietan

## Herriak

Agurain · Alangua ·  
Arrizabalaga ·  
Egileor ·  
Opakua

## Beste datu batzuk

5.254 bizilagun - 2024  
1.393 bizilagun (1900)  
1.100 hektarea soro  
Partzuergoak, Entzia eta Iturrieta  
11 taberna-jatetxe  
3 aloka-toki

## Agurain

◀ ● ●	28 Km	● ▶	Gasteizera
◀ ● ●	87 Km	● ▶	Bilbora
◀ ● ●	86 Km	● ▶	Donostiara
◀ ● ●	70 Km	● ▶	Iruñera



# Arabako Herriak

## Amamengandik bilobengana

### Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Gehiago jakitearren gure web-gunean

